


The background features a pattern of puzzle pieces in shades of green and orange, and a large, faint silhouette of a crowd of people. A central white circle with an orange dotted border contains the main text.

**Vitoria-Gasteizko
Udaleko Emakumeen
eta Gizonen
Berdintasunerako
Agenda**

2017ko plangintza



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



**Vitoria-Gasteizko
Udaleko Emakumeen
eta Gizonen
Berdintasunerako
Agenda
2017ko plangintza**

Izenburua

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Emakumeen eta Gizonen
Berdintasunerako Agenda. 2017ko plangintza**

Egilea, koordinatzailea eta finantzatzailea

Vitoria-Gasteizko Udala. Berdintasunerako Zerbitzua.

Laguntzaileak

**Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila, Funtzio Publikoaren
Saila, Ogasun Saila, Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Saila,
Herritarren Segurtasunerako Saila.**

Laguntza teknikoa

Ibain Consultoría SL

2017ko maiatza

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	1
2. 2017KO AGENDA: PLANARTEKO PLANGINTZAREN DOKUMENTUA	2
3. HELBURUA ETA XEDEAK	4
4. 2017KO PROGRAMAZIOA	4
4.1. EDUKIEN EGITURA	
4.2. PROGRAMAZIOAREN LABURPENA	
4.3. LANTALDEA ETA AURREKONTUA	
4.4. 2017RAKO AURREIKUSI DIREN JARDUEREN XEHETASUNAK	
5. KUDEAKETA-SISTEMA	18
5.1. ERABAKIAK HARTZEKO ETA 2017KO PLANGINTZA KUDEATZEKO EGITURAK	
5.2. DISEINUA, EGIKARITZEA ETA SEGIMENDUA	

1. AURKEZPENA

Berdintasunaren arloan, botere publikoen jarduna gai horietan bideratuko duen plangintza bat egotea da borondate politikoaren adierazpen argienetako bat. Hori dela-eta, zehatza eta eraginkorra izan nahi duen plangintzak honek gidatzen du udalaren esku-hartzea 2017ari begira, eta erreferentziazko dokumentu bihurtu da; izan ere, horren diseinuak eta berori abiarazteak ekarriko dituzten ikaskuntzak giltzarriak izango dira Vitoria-Gasteizen Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Egoteko IV. Plana egiteko orduan. Berdintasunerako tokiko politikak planifikatzeko bi uneren arteko trantsizio-garaian diseinatu da dokumentua, eta Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak adierazitako erronkak ikusarazteko eta horietan sakontzeko asmoa dauka, horietan esku hartu nahi baita.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Agendak, 2017ari begirakoak, berdintasun-arloan 2017rako ezarri diren lehentasunezko lanez gain, proposamen bat jasotzen du. Horren bidez, sailarteko lankidetzeta eta koordinazioa egoteko beharra adierazten da, eta, erakundeak ez ezik, herritar antolatuak ere ordezkatzeko dituzten guneek (elkarrizketarako eta parte hartzeko guneek) parte hartu behar dutela. Zehazki, berdintasunarekiko konpromiso argia duten herritarrak ordezkatzeko dituzten gunez ari naiz. Zeharkako lan-sistema hori egituratzea eta eraginkor egitea da plangintza-dokumentu honen erronketako bat; ezinbesteko erronka hori, dokumentu honek benetako eragina izan dezan. Beraz, kudeaketa-egituren zehaztapenarekin batera, "Udaleko politiketan generoaren zeharkakotasuna sustatzeko neurriak" izenburua duen 1. ardatzak jasotzen dituen neurri guztiek eratzen dute plangintza honen eta IV. Planak jasoko duen plangintzaren oinarria.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet 2017ko Agenda diseinatzeko orduan parte hartu duten sail guztiei, udal osoak baitauka agenda zabaltzeko erantzukizuna, Berdintasunerako Zerbitzua izan arren berdintasun-politikak sustatzeko eskuduna. Urteko plangintza hau diseinatzean, unean-unekoa denez, une honetan lehentasunezko zat jotzen diren jarduerak bakarrik jaso dira. Horregatik, berori diseinatzeko orduan udaleko sail guztiek parte hartu ez badute ere, IV. Planean beharrezkoak izango dira sail horien laguntza eta inplikazioa, berdintasunean eragin positiboa edukiko duten politikak eraiki nahi badira.

Jaione Aguirre López de Araya

Funtzio Publikoko eta Gardentasuneko zinegotzi ordezkaria

2. 2017KO AGENDA: PLANARTEKO PLANGINTZAREN DOKUMENTUA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Agenda, 2017ari begirakoa, trantsizio-une batean formulatu da, Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren¹ eta Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren² artean, alegia. Bada, plangintzak jasotzen dituen jardueretako bat da IV. Plan hori egitea.

Testuinguru horrek zehazten du plangintza-dokumentu hau, bai eta berorren logika eta edukiak zehazten ere; izan ere, edukiak antolatzeke moduari dagokionean III. Plana jarraituko duen dokumentua egin nahi den arren, honelako programazioa bilatzen da:

-IV. Planaren euskarria izango dena, eta plan horri begirako aholku emango duena.

-III. Planaren ebaluazio-txostenak iradokitzen dituen hobekuntzak barne hartuko dituen, programazio hau diseinatzeko erreferentziazko dokumentuetako bat baita hori.

Bestalde, kontuan hartuta urteko plangintza-dokumentua dela hau, aldizkakotasun oso zehatza duena, irizpide hauek erabili dira bertan jasoko diren jarduerak identifikatzeko orduan:

- ⇒ Eskumenen tokiko mapa eta legegintzaldiko lehentasunak, berdintasun-arloari dagokionean.
- ⇒ Berdintasunerako Zerbitzuak 2017rako identifikatu dituen premiazko beharrak edo arazoak.
- ⇒ III. Planaren ebaluazioaren emaitzak.
- ⇒ III. Planean hasi diren baina amaitu ez diren prozesuei eta jardueri jarraipena emateko beharra.
- ⇒ 2017rako udal-baliabideak, giza-baliabideak, baliabide teknikoak eta AURREKONTUKOAK.
- ⇒ Aurreko programazio-aldian egikaritu ez diren jarduera garrantzitsuak abiaraztea.
- ⇒ Jarduteko eremua pribilegiatuta duten sailekiko, zerbitzuekiko edo unitateekiko lana lehenestea.
- ⇒ Aurreko aldi egin ziren baina III. Planean jasotzen ez ziren jarduerak kontuan hartzea, bai eta IV. Plana egiteko behar den hausnarketa-prozesuari laguntzen dioten kontuak aintzat hartzea ere.
- ⇒ IV. Plana formulatzeko orduan, aurrerapenen dokumentua aintzat hartzea.

¹ Aurrerantzean, III. Plana.

² Aurrerantzean, IV. Plana.

Esparru horretan, berdintasunerako 2017rako udal-plangintzaren xehetasunak jasotzen ditu datozen ataletan aurkezten den informazioak. Plangintza diseinatze aldera, lan-prozesu hau jarraitu da:



2017KO AGENDA EGITEKO PROZESUA	
1. FASEA	AZALPENA
ABIAPUNTUA IDENTIFIKATzea	Fase honetan, III. Planaren ebaluazio-dokumentutik abiatuta, 2017ko Agendak jasoko dituen jarduerak bideratuko dituzten irizpideak identifikatu dira. Zernolako plangintza-dokumentua nahi den zehaztu da, baita zertarako nahi den ere, eta, urteko plangintzak hartuko dituen eta lehenetsi diren jarduteko edukien arabera, informazioa zein saili eskatuko zaien ezarri da.
SAILEN, UNITATEEN ETA ZERBITZUEN PARTE-HARTzea	Lanaren une honetan, informazioa eskatu zaie sailei, zerbitzuei eta unitateei; aurreko fasean identifikatutako irizpideetatik abiatuta, 2017ari begira berdintasun-arloan zein jarduera egitea aurreikusi duten adieraz dezaten. 2017ko Agenda definitzeko, sail eta zerbitzu hauei eskatu die informazioa Berdintasunerako Sailak: Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saila (Gazteriaren Zerbitzua), Funtzio Publikoaren Saila (Giza-baliabideak Kudeatzeko Zerbitzua), Ogasun Saila (Kontrataziorako Zerbitzu Orokorra), Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Saila (Gizarteratzeko Zerbitzua, Komunitate Ekintzarako Zerbitzua eta Zuzendaritzako Unitate Teknikoa) eta Herritarren Segurtasunerako Saila (Tokiko Polizia Zerbitzua).
2017KO AGENDA EGITEA	Aurreko fasean jasotako informaziotik abiatuta, Berdintasunerako 2017ko Agendaren zirriborroa egin da, eta agenda kudeatzeko sistema formulatu da.
2017KO AGENDA BALIOZKOTzea, ONARTzea ETA SOZIALIZATzea	Agenda egiteko orduan lagundu duten eta jarduerak egikaritzeko ardura duten sailei, zerbitzuei eta unitateei itzuli zaie 2017ko Agendaren zirriborroa, baliozta dezaten. 2017ko Agenda baliozkotu ondoren, Zuzendaritza Batzordean onartu da, eta, azkenik, udal-mailan sozializatu da.

3. HELBURUA ETA XEDEAK

Atal honetan, 2017ko plangintzaren helburua eta xedeak azalduko dira.

HELBURUA:

2017an emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatze aldera, Vitoria-Gasteizko Udalak esku hartzeko estrategia eratzea.

XEDEAK:

- ⇒ Berdintasunean eragin positiboa izango duen esku-hartze publikorako eremuan aurrera egitea.
- ⇒ Berdintasunaren arloan, udalaren ibilbidea eta lana egonkortzea, hobetzea eta ikusgarri egitea, pertsona guztien herritartasun-eskubideak bermatzeko xedez.
- ⇒ Vitoria-Gasteizko emakumeen eta gizonen berdintasun-ezaren adierazle nagusiak murriztea.
- ⇒ Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana egiteko baldintzak sortzen laguntzea.

4. 2017KO PROGRAMAZIOA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2017ko Agendaren programazioa aurkeztuko da atal honetan. Horretarako, edukiak antolatze egitura, ardatzen arabera jardueren laburpena, taldea eta Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak Agenda sustatzeko, garatzeko eta horren segimendua egiteko duen AURREKONTUA azalduko dira, hurrenez hurren. Azkenik, 2017an egitea aurreikusi diren jardueren deskribapena egingo da.

4.1. EDUKIEN EGITURA

2017ko programazioaren edukiak antolatze aldera, egitura soila hautatu da, eredutzat hartuta Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren erabilitakoa. Hala ere, III. Planaren ebaluazio-dokumentuak nahiz plangintza estrategikorako beste bi dokumentuak (EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak eta Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2016-2020rako IV. Planak) ekarri dituzten hobekuntza ugari jaso ditu.

Gauzak horrela, hiru ardatz hauen arabera multzokatu dira 2017ko plangintzaren zati diren jarduerak:

- ⇒ I. ARDATZA: UDALEKO POLITIKETAN GENERO-ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK
- ⇒ II. ARDATZA: EMAKUMEEN ETA LGTBIQ PERTSONEN JABEKUNTZA FEMINSITA
- ⇒ III. ARDATZA: INDARKERIA MATXISTA

Ez da jarduerarik aurkeztu "GIZARTE-ANTOLAMENDU ERANTZUNKIDEA" izeneko ARDATZERAKO, ez baita lehentasunezko ardatza 2017rako planifikatu den esku-hartzean. Era berean, ez da indarkeria matxistari biziraun dioten emakumeen arreta jorratzeko neurririk jaso; izan ere, esku hartzeko estrategia birdefinitu behar da, bai eremu horretarako, bai erantzunkidetasunarekin eta zainketekin zerikusia duen eremurako, eta IV. Planaren esparruan egingo da hausnarketa hori.

Honela eratzten dira azaldutako hiru ardatzak:

- ⇒ Ardatzaren erronka handien gainean epe luzera begira orientatzen duten ESKU HARTZEKO ILDOAK, beren XEDE ESTRATEGIKOEKIN batera. Alde estrategikoago hori zehazteko, 2017an XEDE OPERATIBOAK dauzka ardatz bakoitzak, epe laburrerako jomuga zehatzagoak azalduz horrela. Urteko plangintza batean ez dauka zentzurik xede estrategikoei buruz hitz egiteak; alabaina, 2017ko Agenda III. Planaren xede estrategikoetatik abiatzen denez eta IV. Planarekin lotzen dituzenez horiek, zentzuzkoa da horiek erreferentziatzat hartzea.
- ⇒ Xede operatibo bakoitzerako JARDUERAK, horiek egikaritzeko SAIL ARDURADUNAREKIN batera eta, egonez gero, horiek garatzen LAGUNDUKO DUTEN SAILEKIN batera. Irizpide gisa, AURREKONTUAN jarduera zehatz bat abiarazteko behar den AURREKONTU-ESLEIPENA duena jotzen da sail arduraduntzat, eta, neurriak AURREKONTU-ESLEIPENIK ez badu, berori garatzeko ardura duen saila hartuko da sail arduraduntzat.
- ⇒ JARDUERA MOTAK. Jatorriaren arabera, honela sailkatzen dira:
 - JARRAIPENEZKOAK, III. Planean egikaritzea aurreikusi arren oraindik abiarazi ez diren jarduerak identifikatzeko.
 - 2017an LEHENTASUNEZKOAK, Vitoria-Gasteizko Udaleko legegintzaldiaren xedeekin zerikusia duten jarduerak nabarmentzeko.
 - BERRIAK, III. Planean aurreikusita egon ez arren planean proposatutako xedeak betetzen dituzten jarduerak aipatzeko. Vitoria-Gasteizko Udalak berdintasunaren arloan identifikatu dituen premiazko arazoei edo beharrei erantzuteko planteatzen diren jarduerak sartzen dira hemen.
- ⇒ Jardueraren AURREKONTUA ohiko AURREKONTUA izan daiteke, AURREKONTU berria izan daiteke, edo AURREKONTURIK behar ez duen jarduera izan daiteke.

Jardueraren ardatza eta esku hartzeko ildoak identifikatzeko moduan zenbakitu dira ekintza guztiak, taula honetan ikus daitezkeen bezala:

ARDATZA

ESKU HARTZEKO 1. ILDOA	
XEDE ESTRATEGIKOAK: 1.1. XE	
XEDE OPERATIBOAK 1.1.1. XO	
JARDUERA: J.1.1.1.1.	SAIL ARDURADUNA
	SAIL LAGUNTZAILEA
	JARDUERA MOTA: JARRAIPENEZKOA/2017AN LEHENTASUNEZKOA/BERRIA
	AURREKONTUA: OHIKOA/BERRIA/EZ DU AURREKONTURIK BEHAR

4.2. PROGRAMAZIOAREN LABURPENA

Jarraian, 2017ko programazioaren laburpena jasotzen duen taula dugu. Bertan, esku hartzeko 7 ildo, 7 xede estrategiko, 17 xede operatibo eta 38 jarduera jasotzen dira.

ARDATZA	ESKU HARTZEKO ILDOA	XEDE OPERATIBOAK	JARDUERA ZK.
I. ARDATZA: UDALEKO POLITIKETAN GENERO-ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK	ESKU HARTZEKO 1. ILDOA: KONPROMISO POLITIKOA	1.1.1. XO: Berdintasunerako plangintza hobetzea	1
		1.1.2. XO: Udaleko Berdintasunerako Zerbitzua indartzea eta sendotzea	4
		1.1.3. XO: Udalak berdintasunarekin duen konpromisoa herritarren artean ikusaraztea	1
		1.1.4. XO: Emakumeen mugimenduek eta berdintasunerako antolakundeek udalaren politikaren garapenean parte hartzea sustatzea	1
	ESKU HARTZEKO 2. ILDOA: BERDINTASUNERAKO GAITZEA	2.1.1. XO: Udaleko langileak berdintasunean prestatzea	5
		2.1.2. XO: Genero-ikuspegia txertatzea emakumeek eta gizonek prestakuntza jarraitura eta kanpo-prestakuntzara sartzeko eta horietan parte hartzeko dauzkaten eremuetan	1
	ESKU HARTZEKO 3. ILDOA: GENERO-IKUSPEGIA PROZEDURETAN	3.1.1. XO: Genero-ikuspegia sartzear informazioaren eta komunikazioaren kudeaketan	3
		3.1.2. XO: Genero-ikuspegia sartzear udalaren estatistiketan eta ikerketetan	1
		3.1.3. XO: Aurretik ebaluatzea generoak araudian edota udalaren plan eta proiektu estrategikoetan duen eragina	3
		3.1.4. XO: Genero-ikuspegia sartzear plan sektorialetan eta zeharkako planetan	2
3.1.5. XO: Berdintasun-irizpideak sartzear kontratazioan, diru-laguntzetan eta lankidetzahitzarmentan		2	
3.1.6. XO: Genero-ikuspegia sartzear pertsonen kudeaketan		1	
II. ARDATZA: EMAKUMEEN ETA LGTBIQ PERTSONEN JABEKUNTZA FEMINSITA	ESKU HARTZEKO 1. ILDOA: EMAKUMEEN JABEKUNTZA PERTSONAL ETA KOLEKTIBOARI ETA HORIEN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOARI LAGUNTZEA	1.1.1. XO: Emakumeen artean hausnartzeko, trukaketak egiteko eta prestatzeko gune feministak sustatzea	3
		1.1.2. XO: Emakumeen parte-hartze eta eragin soziopolitikoan laguntzea	3
	ESKU HARTZEKO 2. ILDOA: LGTBIQ PERTSONEN JABEKUNTZA PERTSONAL, KOLEKTIBO ETA SOZIALARI LAGUNTZEA	2.1.1. XO: LGTBIQ errealitatea ezagutzea eta udalaren esku-hartzea egokitzea	3
III. ARDATZA: INDARKERIA MATXISTA	ESKU HARTZEKO 1. ILDOA: PREBENTZIORAKO INFORMAZIOA, HEZIKETA ETA SUSTAPENA	1.1.1. XO: Indarkeria mota ezberdinei eusteko eta horiek sozializatzeko eredu sozial eta kulturalen berrikuspenean laguntzea, indarkeria horienganako gizarte-arbuioa areagotzeko.	3
	ESKU HARTZEKO 2. ILDOA: ERAKUNDEAK KOORDINATZEA	2.1.1. XO: Indarkeria matxistari erantzun homoginoa eta eraginkorra ematea ahalbidetuko duten koordinazio- eta lankidetzatresnak sortzea	2
JARDUERAK GUZTIRA			39

4.3. LANTALDEA ETA AURREKONTUA

Atal honetan, Berdintasunerako Zerbitzuak plangintza honetan duen erantzukizunaren mende dauden jarduerak sustatzeko, garatzeko eta horien segimendua egiteko dituen lantaldea eta aurrekontua aurkeztuko dira.

Taulan ikus daitekeenez, 7 pertsonak osatzen dute Berdintasunerako Zerbitzua, eta, 2017rako, 32.865,39 eurotan areagotu da zerbitzuko langileen gastua. Batez ere, 2016ko ekainean lantaldera berdintasunerako eragile berri bat sartu izanak azaltzen du hori.

1. ATALA: LANGILEAK		2016KO	2017KO
2017KO LANTALDEA	LANALDI MOTA	AURREKONTUA	AURREKONTUA
ZERBITZU-BURU 1	Osoa	318.602,72 €	351.468,11 €
GOI-MAILAKO 2 TEKNIKARI (BERDINTASUNERAKO ERAGILEAK)	Osoa		
ERDI-MAILAKO 2 TEKNIKARI	1ek osoa 1ek murriztua		
PSIKOLOGO 1	Murriztua		
ADMINISTRARI LAGUNTZAILE 1	Lanaldi erdia		

Berdintasunerako Zerbitzuak Vitoria-Gasteizko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2017ko Agenda abiarazteko duen AURREKONTUA **517.070 eurokoa** da.

4.4. 2017RAKO AURREIKUSI DIREN JARDUEREN XEHETASUNAK

I. ARDATZA: UDALEKO POLITIKETAN GENERO-ZEHARKAKOTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

ESKU HARTZEKO 1. ILDOA: KONPROMISO POLITIKOA

1.1. XE VITORIA-GASTEIZKO UDALAK BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISOA AREAGOTZEA

1.1.1. XO: BERDINTASUNERAKO PLANGINTZA HOBETZEA

JARDUERAK	J.1.1.1.1. Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018-2021erako IV. Plana egitea, parte hartzeko eta kontraste politiko, tekniko eta sozialerako prozesu batetik abiatuta	SAIL ARDURADUNA	Alkatetza Berdintasunerako Zerbitzua
		SAIL LAGUNTZAILEA	Sail guztiak
		JARDUERA MOTA	2017an lehentasunezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa. 27.695 euro.

1.1.2. XO: UDALEKO BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA INDARTZEA ETA SENDOTZEA

JARDUERAK	J.1.1.2.1. Berdintasunerako Zerbitzua berregituratzea, horren egitura, zereginak nahiz esku hartzeko ildoak eta legegintzaldiko lehentasunak nahiz Berdintasunerako IV. Planak ezartzen duen lan-agenda lerrokatuz.	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	2017an lehentasunezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa.
	1.1.2.2. J Vitoria-Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuaren AURREKONTUA areagotzea.	SAIL ARDURADUNA	Alkatetza
		JARDUERA MOTA	2017an lehentasunezkoa
		AURREKONTUA	85.000. Aurrekontu berria.
	J.1.1.2.3. Udalaren agenda politikora sartzea berdintasunerako politika publikoetako erronka handiak, hausnarketa eginez eta berdintasun-gaietako adituekin (eremu akademikoko, erakundeetako eremu teknikoko eta eremu aktibistetako adituekin) alderatuz hausnarketa horiek.	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	2017an lehentasunezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa. 3.330 euro.
	J.1.1.2.4. Vitoria-Gasteizko Udalak berdintasun-arloan sustatu dituen praktika onak ikusaraztea eta transferitzea, Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizitzan eduki behar duten Berdintasunerako Europako Kartaren Behatokia parte hartuz.	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	2017an lehentasunezkoa
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar

1.1.3. XO: UDALAK BERDINTASUNAREKIN DUEN KONPROMISOA HERRITARREN ARTEAN IKUSARAZTEA			
JARDUERAK	J.1.1.3.1. Udalak berdintasunarekiko konpromisoa duela adieraztea manifestuetan, adierazpenetan eta erakundeak herritarrekin komunikatzeko beste bitarteko batzuetan.	SAIL ARDURADUNA	Alkatetza
		JARDUERA MOTA	2017an lehentasunezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa.
1.1.4. XO: EMAKUMEEN MUGIMENDUEK ETA BERDINTASUNERAKO ANTOLAKUNDEEK UDALAREN POLITIKAREN GARAPENEAN PARTE HARTZEA SUSTATZEA			
JARDUERAK	J.1.1.4.1. Jarduerak garatzea, Vitoria-Gasteizko mugimendu feministarekin eta berdintasunaren aldeko emakumeen taldeekin elkarriketan aritzeko eta eragin politikoa edukitzeko gunea izan dadin Elkargunea.	SAIL ARDURADUNA	Alkatetza
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar

ESKU HARTZEKO 2. ILDOA: BERDINTASUNERAKO GAITZEA			
2.1. XE UDALEKO LANGILEEK, POLITIKARIAK BARNE HARTUTA, BEREN JARDUNEAN GENERO-IKUSPEGIA SARTZEKO GAIKUNTZA NAHIKOA DUTELA BERMATZEA.			
2.1.1. XO: UDALEKO LANGILEAK BERDINTASUNEAN PRESTATZEA			
JARDUERAK	J.2.1.1.1. Berdintasun-arloko oinarrizko prestakuntza ematea udaleko langileei , Vitoria-Gasteizko Udaleko Enplegu Publikoko eremuan Berdintasuna egoteko I. Planaren esparruan. ⇒ Sailek langile guztiei zuzendutako ikastaro informatzaileak-prestatzaileak egitea, nahitaezko presentziarekin eta 5 orduko iraupenarekin. ⇒ Maskulinitate berriei, indarkeria matxistari eta erantzunkidetasunari buruzko heziketa-ikastaroak egitea, Tokiko Poliziari, SPISZi eta mantentze-lanetako langileei zuzendutakoak horiek, Emakunderen Gizonduz ekimenaren esparruan.	SAIL ARDURADUNA	Funtzio Publikoa
		SAIL LAGUNTZAILEA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ohikoa.
	J.2.1.1.2. Genero-ikuspegia sartzea kontratu-diseinuan eta -egikaritzean, Gizartearekin Arduratsuak diren Erosketa eta Kontratazioa egiteko Planaren esparruan. ⇒ Prestatzeko eta sentsibilizatzeko bi ikastaro, kontratuen diseinuan eta egikaritzean genero-ikuspuntua nola sartu ikasteko.	SAIL ARDURADUNA	Ogasuna
		SAIL LAGUNTZAILEA	Sail guztiak
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Berria. 3.600 euro.

	<p>J.2.1.1.3. Prestakuntza espezializatua ematea emakumeen laneko osasunaren arloan sartuta dauden langileei.</p> <p>⇒ 12 orduko heziketa-saioa, emakumeen laneko osasunari buruzkoa, Funtzio Publikoaren Saileko eta sindikatuetakoa langile inplikatuak zuzendutakoa.</p>	SAIL ARDURADUNA	Funtzio Publikoa
		SAIL LAGUNTZAILEA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ohikoa.
	<p>J.2.1.1.4. Ikerketetan eta estatistiketan berdintasun-printzipioa sartzeko prestakuntza espezializatua.</p> <p>⇒ 12 orduko heziketa-saioa, Funtzio Publikoaren Saileko langileei zuzendutakoa.</p>	SAIL ARDURADUNA	Funtzio Publikoa
		SAIL LAGUNTZAILEA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ohikoa.
	<p>J.2.1.1.5. Vitoria-Gasteizko emakume hautetsiek Virginia Woolf Basqueskolaren ekimenetan parte hartzea sustatzea.</p>	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar
	2.1.2. XO: GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA EMAKUMEEK ETA GIZONEK PRESTAKUNTZA JARRAITURA ETA KANPO-PRESTAKUNTZARA SARTZEKO ETA HORIETAN PARTE HARTZEKO DAUZKATEN EREMUETARA		
JARDUERAK	<p>J.2.1.2.1. Emakume eta gizon langileen errealtatearen gaineko diagnostikoa egitea, prestakuntza jarraitura eta kanpo-prestakuntzara sartzeko eta horietan parte hartzeko eremuei dagokienez.</p> <p>⇒ Datuak prestakuntza jarraituan eta kanpo-prestakuntzan parte hartzen dutenen sexuaren arabera bereiztea dakar ekintza horrek.</p>	SAIL ARDURADUNA	Funtzio Publikoa
		SAIL LAGUNTZAILEA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar

ESKU HARTZEKO 3. ILDOA: GENERO-IKUSPEGIA LANeko PROZEDURETAN

3.1. XE BERDINTASUNAREN ARLOAN UDALAK ESKU-HARTZE HOMOGENEOA EGITEA ERRAZTUKO DUTEN ETA ADMINISTRAZIOAREN EGINTZEK ETA PROZEDUREK BERDINTASUNEAN ERAGIN POSITIBOA EDUKITZEA AHALBIDETUKO DUTEN LAN-TRESNA KOMUNAK SORTZEA.

3.1.1. XO: GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN KUDEAKETAN

JARDUERAK	J.3.1.1.1. Vitoria-Gasteizko Udalak komunikazio (euskaraz eta gaztelaniaz) ez-sexista egiteko jarraibideak	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
------------------	--	-----------------	----------------------------

	sortzea, pertsonen aniztasuna islatzen laguntze aldera.	JARDUERA MOTA	Jarraipenezkoa
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar
	J.3.1.1.2. Webaren, sare sozialen eta udalaren beste komunikazio-euskarri batzuen bidez informatzea herritarrak berdintasuna lortzeko egiten diren jardueren inguruan eta berdintasunaren arloan egiten diren aurrerapenen inguruan.	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Abian
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar
	J.3.1.1.3. Berdintasunerako Zerbitzuaren komunikazio-estrategia diseinatzea, udalaren politikak eremu horretan dituen erronka berriekin lerrokatuz hori.	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar
	3.1.2. XO GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA UDALAREN ESTADISTIKETAN ETA IKERKETETAN		
JARDUERAK	J.3.1.2.1. Jarraibide bat egitea, zeharka sartu ahal izan dadin sexu-aldagaia datuak ekoiztean eta hedatzean, Vitoria-Gasteizko Udalak egiten dituen estatistiketan eta ikerketetan bereziki.	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Jarraipenezkoa
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar
3.1.3. XO: AURRETIK EBALUATZEA GENEROAK ARAUDIAN EDOTA UDALAREN PLAN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAN DUEN ERAGINA			
JARDUERAK	J.3.1.3.1. Generoaren eragina ebaluazio-ildoetara egokitzeko prozesua hastea Emakunderen toki-administrazioetarako.	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar
	J.3.1.3.2. Udal-ordenantzetan berdintasunaren inguruko gogoeta-txostenak egitea.	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		SAIL LAGUNTZAILEA	Ordenantzaren sail arduraduna
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar
	J.3.1.3.3. Berdintasunaren inguruko nahitaezko txostenak egitea horniduretarako, barne-sustapenerako eta zerbitzu-batzordeetarako deialdien hasierako proposamenetako oinarri orokor eta espezifikoei buruz, eta berdintasunaren inguruko gogoeta-txostenak egitea lan-eskaintza publikoetan eta enplegu publikora sartzeko deialdien oinarri orokor eta espezifikoetan, Enplegu Publikoan Genero Berdintasuna egoteko I. Planaren esparruan.	SAIL ARDURADUNA	Funtzio Publikoaren Saila edota proiektuaren sail arduraduna
		SAIL LAGUNTZAILEA	Berdintasunerako Zerbitzua
JARDUERA MOTA		Berria	

		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar
3.1.4. XO GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA PLAN SEKTORIALETAN ETA ZEHARKAKO PLANETAN			
JARDUERAK	<p>J.3.1.4.1. Udalaren proiektuetan laguntzea, genero-ikuspegia sar dezaten proiektu horien diseinuan eta segimenduan. Laguntza horrek berekin dakar proiektu hauetan etengabe eta asko aholkatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Vitoria-Gasteizko emakumeen eta gizonen kirol-ibilbideei buruzko ikerketan ⇒ Gazteriaren Zerbitzuaren 2017ko programazioan ⇒ Vitoria-Gasteizko Udalak Gizartearekin Arduratsuak eta Jasangarriak diren Erosketa eta Kontratazioa egiteko Planean ⇒ "Mejorando Vitoria-Gasteiz Hobetuz" 2018-2019 programan ⇒ Vitoria-Gasteizko "kode etikoa" egiteko proiektuan 	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		SAIL LAGUNTZAILEA	Proiektuaren sail arduraduna
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar
	<p>J.3.1.4.2. Unean-unean berdintasunaren inguruko aholkua ematea sailei, gogoeta- eta gomendio-modura, genero-ikuspuntua txerta dezaten planetan eta proiektuetan.</p>	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		SAIL LAGUNTZAILEA	Proiektuaren sail arduraduna
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar
3.1.5. XO BERDINTASUN-IRIZPIDEAK SARTZEA KONTRATAZIOAN, DIRU-LAGUNTZETAN ETA LANKIDETZA-HITZARMENETAN			
JARDUERAK	<p>J.3.1.5.1. Gizartearekin arduratsuak eta jasangarriak diren erosketa eta kontratazioari buruzko estatistikak lortzeko aplikazioa hobetzea, sexuaren arabera bereizitako datuak jaso ahal izateko, Gizartearekin Arduratsuak diren Erosketa eta Kontratazioa egiteko Planaren esparruan.</p>	SAIL ARDURADUNA	Ogasun Saila
		SAIL LAGUNTZAILEA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar
	<p>J.3.1.5.2. Berdintasun-klausulak idaztea eta sartzea kontratu-izaera duten orrietan, Gizartearekin Arduratsuak diren Erosketa eta Kontratazioa egiteko Planaren esparruan.</p>	SAIL ARDURADUNA	Ogasun Saila Berdintasunerako Zerbitzua
		SAIL LAGUNTZAILEA	Sail guztiak
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar

3.1.6. XO GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA PERTSONEN KUDEAKETAN

JARDUERAK	<p>J.3.1.6.1. Vitoria-Gasteizko Udaleko Enplegu Publikoko eremuan Berdintasuna egoteko I. Planaren 2017rako programazioa abiaraztea. Honela egingo da, I. Planaren esparruan:</p> <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Adin- eta osasun-arrazoiak tarteko, "urte sabatikoari", telelanari eta errelebo-kontratuen antzekoei buruzko esperientzia pilotuak abiarazteko proiektua. ⇒ Berdintasun-arloko gaiak sartzeko ikasgai-zerrendetan, hornidurarako, barne-sustapenerako eta zerbitzu-batzordeetarako deialdietan. ⇒ Tradizionalki maskulinoztat jotzen diren lanpostuetara sartzeko eratzten diren epaimahaietan parte hartzea, Berdintasunerako Zerbitzuak proposatzen duenean. 	SAIL ARDURADUNA	Funtzio Publikoaren Saila
		SAIL LAGUNTZAILEA	Berdintasunerako Zerbitzua Berdintasunerako Batzorde Paritarioa
		JARDUERA MOTA	Berriak eta jarraipenezkoak
		AURREKONTUA	Ez du aurrekonturik behar

II. ARDATZA: EMAKUMEEN ETA LGTBIQ PERTSONEN JABEKUNTZA FEMINSITA

ESKU HARTZEKO 1. ILDOA: EMAKUMEEN JABEKUNTZA PERTSONAL ETA KOLEKTIBOARI ETA HORIEN PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOARI LAGUNTZEA

1.1. XE EMAKUMEEN ERABATEKO HERRITARTASUNARI LAGUNTZEA, HORIEK AHALDUNDUZ.

1.1.1. XO EMAKUMEEN ARTEAN HAUSNARTZEKO, TRUKAKETAK EGITEKO ETA PRESTATZEKO GUNE FEMINISTAK SUSTATZEA

JARDUERAK	<p>J.1.1.1.1. Emakumeen Berdintasunerako eta Jabekuntzarako Eskolaren 2017rako programazioa diseinatzea, kudeatzea, horren gaineko segimendua egitea eta ebaluatzea</p>	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Jarraipenezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa. 90.000 euro.
	<p>J.1.1.1.2. Vitoria-Gasteizko Emakumeen Etxea sortzea, parte hartzeko prozesu baten bidez. Prozesu horrek informazioa, hausnarketa eta kontraste politiko, tekniko eta soziala hartu behar ditu barne. Bereziki, Vitoria-Gasteizko mugimendu feministak eta berdintasunaren aldeko emakumeen taldeek hartu behar dute parte.</p>	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	2017an lehentasunezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa. 153.263,7 euro.
	<p>J.1.1.1.3. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak erabiltzen dituzten emakume migratzaileak ahalduztzeko prestakuntza.</p> <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Emakume afrikarren tailerra-Magrebeko emakumeen tailerra. Iparraldeko OGZ. ⇒ Emakumeentzako Bizitza Eskola. Ariznabarrako eta Aldabeko OGZ. ⇒ Kultura berri batean hezte. Hegoaldeko OGZ. 	SAIL ARDURADUNA	Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Saila/Komunitate Ekintzarako Zerbitzua/OGZ.
		JARDUERA MOTA	Jarraipenezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa.

	⇒ Gaztelaniaz bizitzen tailerra, oinarritzko maila eta maila aurreratua. Salburuko OGZ.		
1.1.2. XO EMAKUMEEN PARTE-HARTZE ETA ERAGIN SOZIOPOLITIKOAN LAGUNTZEA			
JARDUERAK	J.1.1.2.1. Lan-tresnak berrikustea eta egokitzea Vitoria-Gasteizko berdintasunaren aldeko emakumeen elkarte-mugimenduarekin (diru-laguntzen deialdiak, informazioa, emakumeen elkarteei laguntzea eta abar).	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ez du AURREKONTURIK behar
	J.1.1.2.2. Genero-berdintasunaren arloan jarduerak eta proiektuak egiten dituzten Vitoria-Gasteizko elkarteei diruz laguntzea, diru-laguntzen bidez.	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Jarraipenezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa. 50.000 euro.
	J.1.1.2.3. Martxoaren 8aren inguruan (Emakumeen Nazioarteko egunaren bueltan) berdintasunaren arloan sentsibilizatzeko jarduerak sustatzea eta garatzea.	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Jarraipenezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa.
ESKU HARTZEKO 2. ILDOA: LGTBIQ PERTSONEN JABEKUNTZA PERTSONAL, KOLEKTIBO ETA SOZIALARI LAGUNTZEA			
2.1. XE LGTBIQ PERTSONEN ERABATEKO HERRITARTASUNARI LAGUNTZEA, HORIEK AHALDUNDUZ.			
2.1. XE 1. LGTBIQ ERREALITATEA EZAGUTZEA ETA UDALAREN ESKU-HARTZEA EGOKITZEA			
JARDUERAK	J.2.1.1.1. Vitoria-Gasteizko LGTBIQ kolektiboaren errealitateari buruzko diagnostikoa egitea	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	Ohikoa. 25.410 euro.
	J.2.1.1.2. Sexu-aholkularitza eta psiko-aholkularitza indartzea, LGTBIQ gazteak orientatzeko eta laguntzeko baliabide gisara	SAIL ARDURADUNA	Gazteriaren Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	2017an lehentasunezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa. 3.000 euro.
	J.2.1.1.3. Maiatzaren 17aren inguruan (Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan) sentsibilizatzeko eta hezteko jarduerak sustatzea eta garatzea.	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Jarraipenezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa. 12.000 euro.

III. ARDATZA: INDARKERIA MATXISTA

ESKU HARTZEKO 1. ILDOA: PREBENTZIORAKO INFORMAZIOA, HEZIKETA ETA SUSTAPENA

1.1. XE BERTINTASUNAREKIN ETA INDARKERIA-EZAREKIN KONPROMETITUTAKO JOKAERA-EREDUEN GARAPENA SUSTATZEA.

1.1.1. XO INDARKERIA MOTA EZBERDINEI EUSTEKO ETA HORIEK SOZIALIZATZEKO EREDU SOZIAL ETA KULTURALEN BERRIKUSPENEAN LAGUNTZEA, INDARKERIA HORIENGANAKO GIZARTE-ARBUIOA AREAGOTZEKO.

JARDUERAK	<p>J.1.1.1.1. Indarkeria matxistaren inguruan prebenitzeko programa bat sustatzea eta abiaraztea, gazteei zuzendutakoa batez ere, Beldur Barik erakundearteko programaren esparruan. Programa horrek hauek jaso beharko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Hiri Hezitzaileen programaren esparruan, indarkeria matxista prebenitzeko tailerrak (ikasleentzat, irakasleentzat eta gurasoentzat) (1) ⇒ Indarkeria matxista prebenitzeko tailerrak neska-mutil gazteentzat, lehiaketa eta topaketa, Beldur Barik programaren esparruan (1) ⇒ Festetan eta aisialdi-guneetan indarkeria matxista prebenitzeko programa espezifiko garatzea (1) ⇒ Autodefentsa feministako tailerrak egitea eta ebaluatzea (1) ⇒ Azaroaren 25aren inguruan (Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan) sentsibilizatzeko jarduerak sustatzea eta garatzea. (1) ⇒ "Zure esku ere badago" kanpaina egitea Beldur Barik programaren esparruan, gazteek sexualitate osasuntsua, adeitsua eta berdintasunezkoa bizi dezaten (2) ⇒ Indarkeria matxista guztien aurkako kanpaina (3). 	SAIL ARDURADUNAK	Berdintasunerako Zerbitzua Gazteriaren Zerbitzua
		SAIL LAGUNTZAILEA	Hezkuntza Zerbitzua Tokiko Polizia Zerbitzua Kultura Zerbitzua Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Saila
		JARDUERA MOTA	Jarraipenezkoa
		AURREKONTUA	(1) Ohikoa. 55.327 euro. (2) Ohikoa. 9.000 euro. (3) Ohikoa. 14.000 euro.
	<p>J.1.1.1.2. Hezitzaileak aniztasunean, berdintasunean eta bizikidetzan prestatzea, "Zaramaga eta Aranbizkarra tratu onen alde" programaren esparruan.</p>	SAIL ARDURADUNA	Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Saila/Komunitate Ekintzarako Zerbitzua/Iparraldeko IHPa.
		SAIL LAGUNTZAILEA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Jarraipenezkoa

		AURREKONTUA	Ohikoa.
	J.1.1.1.3. Berdintasunez Blai proiektua eta Infotran sentsibilizazio-kanpaina abiaraztea, gazteen artean tratu txarrak prebenitzeko eta tratu onak zein berdintasunezko harremanak bultzatzeko.	SAIL ARDURADUNA	Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Saila/Komunitate Ekintzarako Zerbitzua/Lakua-Abetxukuko IHP-OGZ.
		JARDUERA MOTA	2017an lehentasunezkoa
		AURREKONTUA	Ohikoa.

ESKU HARTZEKO 2. ILDOA: ERAKUNDEAK KOORDINATZEA			
2.1. XE INDARKERIA MATXISTAREN ARLOAN ESKU HARTZEN DUTEN UDALEKO SAILEN ARTEKO KOORDINAZIOA MANTENTZEA ETA HOBETZEA			
2.1.1. XO INDARKERIA MATXISTARI ERANTZUN HOMOGENEOA ETA ERAGINKORRA EMATEA AHALBIDETUKO DUTEN KOORDINAZIO- ETA LANKIDETZA-TRESNAK SORTZEA			
JARDUERAK	J.2.1.1.1. Erakundeek eraso eta hilketa matxisten aurrean erantzuteko protokoloa egitea	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	3.000
	J.2.1.1.2. Eraso matxistei erantzun instituzionala emate aldera, Blusei eta Neskei barne-mailako protokoloa egiteko orduan laguntzea	SAIL ARDURADUNA	Berdintasunerako Zerbitzua
		JARDUERA MOTA	Berria
		AURREKONTUA	3.000 euro.

5. KUDEAKETA-SISTEMA

Plangintza honen kudeaketa-sistema zehazteko, III. Planaren ebaluazio-dokumentura jo behar da zuzenean; zehazki, III. Planaren kudeaketa-sistemaren eta segimenduaren balorazioari buruzko zatira. Ebaluazio horretan, III. Planaren funtzionamenduaren eta kudeaketaren inguruko askotariko iritziak daudela hautematen den arren, oso balorazio positiboa egiten zaio koordinazio-egiturak eta egitura politikoak zein teknikoak egoteari; bai eta, oro har, elkarrizketarako eta koordinaziorako gunek egoteari ere. Are, udalaren lan-prozesuetara genero-zeharkakotasuna sartzen ikasteko orduan gunek horiek duten zeregin hezitzailea aitortu da.

Gainera, III. Planaren ebaluazioak hainbat hobekuntza proposatzen ditu; hala nola, hauek: lan kolektiboaren erritmoari eustea eta jarraitutasunik eza haustea, segimendua sistematikoki sartzeko beharra, beste udal-plan batzuk koordinatzeko dauden gunek baliatzea (egiturak eraginkor bihurtzeko eta ez bikoizteko xedez), eta hain boluntarista ez den kudeaketa-eredu baterantz abiatzea, politika sektorialean eragiteko gaitasuna duten edo lidergo politiko handiagoa duten teknikariek. Alderdi horiek eta beste batzuk dira 2017ko plangintzaren kudeaketa-sistema eraikitzeke oinarria, baita Vitoria-Gasteizko Udalean berdintasun-arloan tokiko politika sustatzeko bi une ezberdin baina elkarren osagarriak modu programatikoan lotzeko balioko duen plangintza egiteko beharra ere.

2017ko plangintza kudeatzeko sistema definitze aldera, aipatutako hobekuntzak sartzeaz gain, ez da aldaketa handirik proposatuko, jada egindakoari dagokionez. Une honetan, behar diren egituren gaineko nolabaiteko eztabaida sortzeari ematen zaio lehentasuna, bai eta tokiko administrazioetan berdintasunerako erakunde-arkitektura sendotzeari ere. Beraz, IV. Plana definitzeari begira, plangintzaren segimendua koordinatzen eta bermatzen duen kudeaketa-sistemaz gain, udalak garatzen dituen politika publikoen benetako eraginari eta politika horiek desberdinkeria diskriminatzaileak murrizteko orduan dituzten emaitzei buruzko baterako hausnarketa bultzatuko duen kudeaketa-sistema bilatu nahi da.

Zer da 2017rako plangintzaren kudeaketa-sistema?

- ⇒ Kudeaketa-sistematzat edo -eredutzat jotzen dira berdintasun-politikak (zehazki, plan estrategikoak) antolakundearen behar bezala ezartzea bermatzeko ezartzen diren lan-prozesuak eta egiturak.

Zergatik kudeaketa-sistema bat 2017ko plangintzarako?

- ⇒ Kudeaketa-sistema bat definituz, eragile ezberdinek (tartean dauden sailek, zerbitzuek eta unitateek) proposatu diren berdintasunerako xedeen ezarpenaren parte hartzeko duten esparrua ere definitzen da, udalaren kudeaketan jarduteko moduak eraldatzen lagunduko duten estrategia partekatuak egiteko eta adosteko xedez.
- ⇒ Koordinazio-egiturak ez dira lana adosteko bakarrik sortzen; izan ere, gai honetan eskuduna den zerbitzuari -Berdintasunerako Zerbitzuari- aitortza egiteko eta plangintzaren ondoriozko aldaketa-proposamenak legitimatzeko sortzen dira

batez ere. Horrekin, analisi feministek politika publikoetan benetan eragitea lortzen da; hau da, dauden desberdinkerien eta politika egiteko moduaren arteko harremana azter daiteke.

- ⇒ Ezinbesteko betekizuna da parte hartzeko eta koordinaziorako esparru hori egotea, udalaren kudeaketan lanerako zeharkako ikuspegiak ezarri nahi badira, eta politika publikoetan erantzunkidetasun-printzipioa ezarri nahi bada.

Esparru horretatik abiatuta, 2017ko Agendaren kudeaketa-sistema aurkezten da. Bi zati bereizi dauzka: Lehenengoan, erabakiak hartzeko eta plangintza kudeatzeko egiturak aipatzen dira. Plangintzari, plangintza egikaritzeari eta horren gaineko segimendu teknikoa egiteari buruzkoa da bigarrena.

5.1. ERABAKIAK HARTZEKO ETA 2017KO PLANGINTZA KUDEATZEKO EGITURAK

Erabakiak hartzeko eta 2017ko plangintza kudeatzeko egiturak identifikatzeko, argi eta garbi mugatu behar da plangintzan sartutako taldeen parte-hartzea, bai eta horietako bakoitzak dituen zereginak ere, beren eginkizunak zehazte aldera.

Jarraian, 2017ko plangintzan sartuta dauden eragileen mapa jasotzen da, beranduago xehetasunez deskribatzeko:

- ⇒ Vitoria-Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzua
- ⇒ Vitoria-Gasteizko Udaleko ordezkari politikoak
- ⇒ Vitoria-Gasteizko Udaleko zuzendaritza-mailako ordezkariak
- ⇒ 2017ko plangintzaren ezarpenean sartuta dagoen ordezkari teknikoa
- ⇒ Vitoria-Gasteizko mugimendu feministako eta berdintasunaren aldeko emakumeen taldeetako ordezkariak
- ⇒ Ezinbestekoa da EAEn berdintasun-politikak sustatzeko xedez lan egiten duten beste erakunde batzuekin erakundearteko lankidetzan aritzea.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzua

Berdintasun-arloan eskudun zerbitzua izanik, bai eta berdintasun-arloko estrategia diseinatzeko azken arduraduna izanik ere, edota estrategia hori abiarazteko eta zabaltzeko sustapenaren eta koordinazioaren arduraduna izanik, hauek izango dira horren egitekoak, kudeaketa-sistemari dagokionean:

- ⇒ Agenda garatzeari begira, lan kolektiboa sustatzea, dinamizatzea eta zuzentzea. 2017ko Agenda egitea, eta horren gaineko segimendua eta azken memoria egitea.
- ⇒ Sailei, zerbitzuei eta unitateei aholku ematea, genero-ikuspegia txerta dezaten.
- ⇒ Tartean dauden askotariko eragileekin zuzenean hitz egitea.

Vitoria-Gasteizko Udaleko ordezkari politikoak

Vitoria-Gasteizko Udaleko zinegotziek osatuko dute, Batzorde Politikoan daudenek. Dagoeneko badagoen udal-gunea da hori, eta egiteko hau edukiko du, 2017ko plangintzari dagokionean:

- ⇒ 2017ko plangintza ezagutzea eta horren gaineko segimendua egitea.

Vitoria-Gasteizko Udaleko zuzendaritza-mailako ordezkariak

Zuzendaritza Batzordea izeneko batzorde politikoan antolatuko da, eta 2017ko plangintzan zuzeneko ardura duten sailtako zuzendaritzek bakarrik osatuko dute. Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Sailaren barruko Berdintasunerako Zerbitzuko zuzendari arduraduna izango da batzorde horretako burua, eta zeregin hauek edukiko ditu:

- ⇒ 2017ko Agenda onartzea eta horren ebaluazioa egitea.
- ⇒ Agenda garatzeko baliabideak bermatzea eta, Berdintasunerako Zerbitzuarekin batera, erakundeek berdintasunarekin duten konpromisoari eusteko ardura edukitzea.

2017ko plangintzaren ezarpenean sartuta dagoen ordezkari teknikoak

Batzorde Teknikoa izeneko batzordean antolatuko da, eta 2017ko plangintzan zuzeneko ardura duten zerbitzuetako buruzagitzek bakarrik osatuko dute. Saileko zuzendaritzak izendatuko ditu pertsona horiek ofizialki, eta, zereginak betetzeari begira, bere taldekoa den eta ekintzetan inplikaturik dagoen teknikariren baten laguntza jaso ahalko dute horiek. Ahal bada, hobe berdintasun-arloko prestakuntza badute, aholku eman ahal izan dezaten. Berdintasunerako Ataleko Zerbitzuko burua izango da batzorde horretako burua, eta zeregin hau edukiko du:

- ⇒ 2017ko Agenda egiteko, egikaritzeko eta horren gaineko segimendua egiteko orduan laguntzea.

Vitoria-Gasteizko mugimendu feministako eta berdintasunaren aldeko emakumeen taldeetako ordezkariak

Elkargunearen bidez eta Berdintasunerako Zerbitzuak bultzatzen dituen proiektu espezifikoaren esparruan sortzen diren **parte hartzeko guneen bidez** egingo da. Lehenetsunez, mugimendu feministako eta berdintasunaren aldeko emakumeen taldeetako ordezkariak batek eratuko dituzten gune horiek. Bestetik, Vitoria-Gasteizko gizarte-antolakundeak eta gizarte zibilaren antolakundeak ere egongo dira, bai eta norbanakoak ere. Elkarrizketa-mekanismoetan erabiltzen dira Elkargunea nahiz *ad hoc* sortutako parte hartzeko guneak, udalaren agendan kontuan har eta sar daitezkeen Vitoria-Gasteizko herritarren beharrak, interesak eta ekarpenak, erakundeen eta herritar aktiboen arteko harremana sortzen baita horrela. 2017ko plangintzari dagokionean, parte hartzeko guneak sortuko dituzten proiektu espezifikoaren esparruan zehaztuko eta adostuko dira gune horien eginkizunak. Elkargunearen zereginak, berriz, hauek izango dira:

⇒ 2017ko plangintza ezagutzea eta horren gaineko segimendua egitea, hobetzeko eremuak proposatuz.

Erakundearteko elkarlana

Erakundearteko elkarlanari esker, aliantzak zein harremanak sortu ahalko dira EAEko beste erakunde batzuekin; besteak beste, Emakunderekin, EUDELekin edo Arabako Foru Aldundiarekin.


Oro har, egitura horien funtzionamenduak, 2017ko plangintza garatzea bermatzeaz gain, IV. Plana modu efizientean ezartzeko behar diren baldintzak eta koordinazio-mekanismoak eratzea ahalbidetuko du.

5.2. 2017KO PLANGINTZA DISEINATZEA, EGIKARITZEA ETA HORREN GAINEKO SEGIMENDUA EGITEA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Agenda abiarazteko eta zabaltzeko, ondoz ondoko hiru prozesu abiaraziko dira (beherago dagoen taulan daude azalduta). Adierazi den bezalaxe, trantsizio-garai bati erantzun espezifikoa emateko diseinatu da proposatutako sistema, eta Vitoria-Gasteizko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planera eramango da trantsizio-garai horretan plangintza hau abiaraztetik ikasitakoa.

2017KO PLANGINTZA DISEINATZEA, EGIKARITZEA ETA HORREN GAINEKO SEGIMENDUA EGITEA	
SEKUENTZIA	LANAK/ARDURAK

DISEINUA	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ III. Planaren ebaluazio-txostenetik eta berdintasun-arloan jarduerak garatzen dituzten sailek, zerbitzuek eta unitateek (Berdintasunerako Zerbitzua barne hartuta) emandako informaziotik abiatuta, edukien lehenengo agenda egingo du Berdintasunerako Zerbitzuak, dokumentu honen bigarren atalean jasotzen diren jarduerak identifikatzeko ezarri diren lehentasunetan oinarrituta. Edukien agenda hori kontinuista izango da, III. Planaren formari dagokionean, eta bi planen arteko trantsizio-tresna izateko pentsatu da. ⇒ Zuzendaritza Batzordea sortuko da, eta 2017ko Agenda egikaritzeko unean parte hartuko duten teknikariak izendatuko dira, Berdintasunerako Zerbitzuarekin batera. ⇒ Zuzendaritza Batzordeak onartuko du 2017ko Agenda, eta horren berri emango die Berdintasunerako Udal Batzordeari eta Elkarguneari.
EGIKARITZEA ETA SEGIMENDUA EGITEA	<ul style="list-style-type: none"> ⇒ Berdintasunerako Zerbitzuak aurretik aurreikusi eta zehaztu duen laguntza- eta aholkularitza-prozesuaren bidez lagunduko zaio egikaritzeari. ⇒ Batzorde Teknikoaren bidez egingo da 2017ko plangintzaren segimendua. Batzorde hori elkartu egingo da, bai modu jarraituan ebaluatzeko, bai, hala badagokio, 2017ko plangintza-dokumentua doitzeko, jardueren koordinazioa bermatuz. ⇒ 2017ko plangintza egikarituta dagoenean, egikaritze-memoria egingo du Berdintasunerako Zerbitzuak, jardueren garapenean ardura duten sailek, zerbitzuek eta unitateek emandako informaziotik abiatuta. Batzorde Teknikoak memoria hori baliozkotzen duenean, Zuzendaritza Teknikoari aurkeztuko zaio, onar dezan. Informazio-xedeetarako, Batzorde Politikoari eta Elkarguneari ere aurkeztuko zaie, gero emaitzak baloratu ahal izan ditzaten. ⇒ IV. Planera eramango da prozesuan ikasitakoa, eta, horri esker, baldintza ezin hobean diseinatuko, zabalduko eta ebaluatuko da plana.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala